

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
- Bilboko enpresetan ekainean afiliatutako biztanle-kopurua % 0,7 igo da aurreko hilekoarekin alderatuta, 200.266 pertsona baitaude. - Erregistratutako langabeen kopurua igo da, eta 20.458 langabe daude (% 0,2 hilabetetik hilabetera). Bigarren hiruhilekoko BAIren arabera, langabezia-tasa % 9,02koa da. - Ekainean 14.783 kontratu erregistratu ziren guztira eta 11.174 pertsona kontratatatu ziren. - Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute urte batetik bestera (% 2,9). - Bilboko hotel-establezimenduen, apartamentuen eta aterpetxe turistikoen jarduera turistikoak, guztira, 144.308 bidaiari-sarrera eta 279.575 gaualdi izan ditu. - Bigarren hiruhilekoan 267 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, eta 73 desegin dira. - Bilbok laugarren hiruhilekoa amaitu du etxebizitzaren alokairuaren batez besteko errenta 1.011,1 €/hilekoa izanik. - Bilboko aireportuan 735.286 bidaiari erregistratu dira, 2025eko ekainean baino 49.466 gehiago. Bilboko Portuan 2,8 milioi tonako trafikoa erregistratu da ekainean, eta % 32,2ko gorakada izan da urterik urtera.		Azken data	Δ Urte artean (%) *aurreko aldia	Azken data dataua
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	200.042	-1,4*	Ekain.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	20.458	0,2*	Ekain.
	Langabezia-tasa (BAI)	9,02	1,53 ep.	IIT26
	Erregistratutako kontratuak	14.783	13,4	Ekain.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	104,3	2,9	Ekain.
	Turismoa (hotelak eta apartamentuak)			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	144.308	6,8	Ekain.
	Ostatu-gauak (kop.)	279.575	8,5	Ekain.
	Batez besteko egonaldia (egunetan)	1,94	1,57	Ekain.
	Ekonomia eta enpresak			
	Sortutako merkataritza-sozietateak	267	15,6	IIT26
	Desegindako merkataritza-sozietateak	73	-22,3	IIT26
	Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	1.011,1	2,2*	IVT25
	Garraioa			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	735.286	7,2	Ekain.
	Merkantzien itsas garraioa (milioi tona)	2,8	32,2	Ekain.

DATU BAT

% 9,02

Langabezia-tasa (BAI)

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Ekainean 38 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko % 0,2 gehiago, eta 20.458 langabe daude udalerrian.

Emakumeen artean langabezia jaitsi egin da; gizonezkoen artean, aldiz, igo egin da, +% 0,8 eta -% 0,6, hurrenez hurren.

Termino absolutuetan, hilabete amaieran 95 emakume langabe gehiago eta 57 gizonezko langabe gutxiago zeuden.

Adin-tarteen arabera, langabezia % 1,0 igo da 25 eta 44 urte artekoen artean (71 langabe gehiago), eta % 0,4 16 eta 24 urte artekoen artean (8 gehiago). 45 urtekoen eta hortik gorakoen artean baino ez da jaitsi: -% 0,4, hau da, 41 pertsona gutxiago.

Sektoreka, langabe kopuruak behera egin du Eraikuntzan (-17 eta -% 1,4) eta Industrian (-29 eta -% 2,2). Zerbitzuek 43 langabe gehiago dituzte (+% 0,3) eta Lehen Sektoreak 4 gehiago (+% 1,1). Lehen enpleguaren bila ari direnen artean ere gora egin du langabeziak (+37 eta +% 1,1).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak -% 0,6 egin du behera aurreko hilaren aldean. Sevilla da ehunekotan beherakadarik handiena izan duen hiriburua (-% 1,3), eta Bartzelona, berriz, txikiena (-% 0,2). Langabeziak gora egin du Valentzian eta Zaragozan (+% 0,1 eta +% 0,4).

Euskal hiriburu multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa -% 0,5 jaitsi da. Gasteizen (-% 1,2) eta Donostian (-% 0,5) egin du behera. Iruñean gora egin du (+% 0,4).

Langabeziak gora egin du EAEn (% 0,5 hilabete artean). Lurraldeka: % 0,4 igo da Bizkaian eta % 1,4 Gipuzkoan; Araban baino ez da jaitsi, -% 0,9.

Afiliazioa

Bilboko enpresetan 200.042 afiliatu zeuden ekainaren amaieran, hau da, -% 1,4ko jaitsiera izan zen eta 2.777 enplegu gutxitu ziren maiatzarekin alderatuta.

Erregimenen arabera, Erregimen Orokorrek 2.735 afiliazio gutxiago izan ditu aurreko hilabetearekin alderatuta (-% 1,6), Langile Autonomoen Bereziak 112 (-% 0,5), Etxekoak 44 gehiago (+% 0,7) eta Bereziek bakarrik (Nekazaritza eta Itsasoa) ugaritu dituzte enpleguak, zehazki 26 enplegu.

Sektoreka, Zerbitzuetan baino ez da jaitsi afiliatuen kopurua: 3.254 gutxiago (-% 1,8). Aitzitik, Eraikuntzan (103 gehiago, +% 1,1), Industrian (356 gehiago, +% 4,3) eta Lehen sektorean (18 gehiago, +% 5,8) gora egin du.

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Ekaina	20.458 pertsona
	% 0,2 ▲
Emakumeak	% 0,8 ▲
Gizonak	% 0,6 ▼

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 0,2 ▲
G-5	% 0,6 ▼
G-3	% 0,5 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Ekaina	200.042 pertsona
	% 1,4 ▼
Araubide orokorra	% 1,6 ▼
Autonomoak	% 0,5 ▼
Etxeko langileak	% 0,7 ▲
Bestelakoak	% 3,8 ▲

Zerbitzuen sektorean, datu absolutuetan, nabarmentzekoak dira Osasunaren eta Txikizkako merkataritzaren adarretan izandako igoerak (941 eta 234 afiliatu gehiago, hurrenez hurren). Enpleguak behera egin du, besteak beste, Hezkuntzan, Ostalaritzan, Aisialdi-jardueretan eta Administrazio-jardueretan (-1.709, -712, -689 eta -688, hurrenkera horretan).

Urte arteko terminoan enpleguak % 1,4ko hazkundea izan du, hau da, 2.739 afiliatu gehiago.

Araubideen arabera, Erregimen Orokorrak % 1,4 egin du gora, Etxeko Langileenak % 4,2, eta Autonomoen eta erregimen berezienek (Nekazaritza eta Itsasokoa), berriz, % 0,4 bi kasuetan.

Oharra: EJSN-2025 berria dela eta, aldaketa horrekin jarduera batzuen sailkapena aldatu egin da, eta horrek esan nahi du ezin direla alderatu aurreko kodetzearekin. Horregatik, +datak ezin izango du urte arteko aldaketarik txertatu 2027ko urtarrileko alertara arte.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 1,1eko jaitsiera izan du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztietan behera egin du afiliazioak. Ehunekotan, gehiena Zaragozan (-% 2,0).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopuruak, batera hartuta, behera egin du (-% 0,6). Iruñean -% 1,1 egin du behera, Donostian -% 0,5 eta Gasteizen -% 0,4.

EAE osoan, afiliatuak -% 1,0 jaitsi dira hil artean. Lurraldeka, Bizkaiak -% 1,3 egin du behera, Arabak -% 1,1 eta Gipuzkoak -% 0,6.

Kontratuak

Ekainean 14.783 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtetik urtera % 13,4ko igoera eta 1.742 kontratu gehiago. Urtetik urtera gora egin dute gizonei eta emakumeei egindako kontratuak: 488 eta 1.254 gehiago, hurrenez hurren.

Kontratuak adin-tarte guztietan igo dira: gazteenen artean, % 21,7, hau da, 905 kontratu gehiago; 25-44 urtekoen taldean % 12,0 (691 gehiago); eta 45 urte eta gehiagokoaren artean, % 4,7 (146 gehiago). Erregistratutako kontratuen % 43,6 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (6.445 kontratu) % 22,0 berriz, 45 urte eta gehiagokoei (3.258) eta gainerako % 34,4 gazteenei (5.080).

Sektoreka, kontratuak igo egin dira Zerbitzuetan (% 14,3 eta 1.712 kontratu gehiago) eta Eraikuntzan (% 9,0 eta 38 gehiago); aldiz, behera egin dute Industrian (-% 0,9 eta 6 gutxiago) eta Lehen sektorean (2 gutxiago).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Ekaina	200.042 pertsona
	% 1,4 ▼
Zerbitzuak	% 1,8 ▼
Eraikuntza	% 1,1 ▲
Industria	% 4,3 ▲
Lehenengo Sektorea	% 5,8 ▲

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,4 ▼
G-5	% 1,1 ▼
G-3	% 0,6 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Ekaina	14.783 kontratu
	% 13,4 ▲
Emakumeak	% 18,1 ▲
Gizonak	% 8,0 ▲
Lehenengo Sektorea	% 16,7 ▼
Industria	% 0,9 ▼
Eraikuntza	% 9,0 ▲
Zerbitzuak	% 14,3 ▲
Kontratatutako pertsonak	% 13,7 ▲

Zerbitzuen sektorean, igoera absoluturik nabarmenenak Ostalaritzan (416 gehiago), Arte-, aisialdi- eta entretenimendu-jardueretan (352 gehiago) eta Etxeetan (320 gehiago) izan dira. Informazioa eta komunikazioak (-99) eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (-59) dira urte arteko jaitsierarik handienak izan dituzten adarrak..

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 77,0 izan dira ekainean. Mugagabeek % 16,1 egin dute gora urte artean. 11.174 pertsona kontratatu dira, % 13,7 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,32 kontratu.

BAI

BAIk 2026ko bigarren hiruhilekoa itxi du okupazioaren beherakada nabarmenarekin eta langabeziaren igoerarekin; azken horrek gizonezkoen biztanleriari baino ez dio eragiten.

Mugimendu horiek, neurri handi batean, biztanleria ez-aktiboaren hazkundeak baldintzatu ditu; hiruhileko honetan 5.500 pertsonako igoera izan da.

Datu orokorretan: -3.700 aktibo, -6.100 landun eta +2.300 langabe

Bigarren hiruhilekoan landunen kopuruak behera egin du (-% 3,7). Beherakada hori bi sexuetan gertatzen da, baina nabarmenagoa da emakumeen artean (3.400 emakume landun gutxiago eta 2.700 gizon landun gutxiago).

Enplegu-tasa ehuneko 2,27 puntu jaitsi da, eta % 51,03an geratu da.

Sektoreka, hiruhileko honetan enplegua galdu dute Industriak eta Zerbitzuek (300 eta 5.900 enplegu gutxiago, hurrenkera horretan). Eraikuntzan baino ez da igo okupatuen kopurua (100 gehiago).

Langabeek gora egin dute (2.300 pertsona gehiago); hau da, aurreko hiruhilekoko 13.300etik 15.600 langabetura igaro dira urteko bigarren hiruhilekoan. Gizonezkoen artean soilik egin du gora.

Langabezia-tasak gora egin du 1,53 ehuneko puntutan eta, beraz, % 9,02koa da. Emakumeen kasuan behera egin du eta % 8,14an geratzen da, baina gizonentzat % 9,79ra arte igotzen da.

Biztanle landunei egindako inkesta BAI

Hiruhileko arteko Δ

II. hiruhilekoa

Langabezia-tasa	% 9,02	
	1,53 pp	▲
Emakumeak	0,90 pp	▼
Gizonak	3,75 pp	▲
Biztanleria aktiboa	% 2,1	▼
Biztanleria landuna	% 3,7	▼
Biztanleria langabea	% 17,3	▲

MERKATARITZA

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, ekainean % 2,9 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, % 1,7 igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek gora egin dute (% 3,7) 2025eko ekainarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek % 1,6.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizea urte arteko % 0,0ko alderaketan geratzen da.

Gainerako lurraldeetan, elikadura arloko azalera handietan eta kateetan salmentek gora egin dute Araban eta Gipuzkoan (% 6,1 eta % 5,8, hurrenez hurren). EAEn, orokorrean, % 4,2 egin dute gora.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Ekaina	104,3
Salmenten indizea	% 2,9 ▲
- Elikadura	% 3,7 ▲
- Gainerako produktuak	% 1,6 ▲
Lanean ari diren langileak	% 0,0 =

EKONOMIA ETA ENPRESAK

Sozietate berriak

2026ko bigarren hiruhilekoan Bilbon 267 merkataritza-sozietate berri eratu dira; hau da, % 15,6 igo da aurreko urteko aldi beraren aldean (36 sozietate gehiago, datu absolutuetan).

Sektoreka, Zerbitzuetan 239 sozietate sortu dira (guztizkoaren % 90), 2025eko bigarren hiruhilekoan baino 41 gehiago; Industrian 10 eta Lehen Sektorean batere ez (1 gehiago eta 1 gutxiago, hurrenez hurren). Eraikuntzan 18 sozietate berri sortu ziren (5 gutxiago).

Bigarren hiruhilekoan 73 sozietate desegin dira, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino 21 gutxiago. Horien % 78 Zerbitzuen sektoreari dagokio, eta gainerakoa Industriaren eta Eraikuntzaren artean banatzen da; % 11 bi kasuetan.

Aurten, hau da, lehen bi hiruhilekoetan, guztira 517 sozietate berri sortu dira eta 206 desegin; aurreko urteko aldi beraren aldean, % 5,3 gehiago eta %11,6 gutxiago, hurrenez hurren.

Oharra: Hiruhileko honetan, urte arteko alderaketa errazteko, Eraikuntzako eta Zerbitzuetako datuak CNAE-2025 berrira egokitu dira.

Merkataritza-sozietateak

Urte artekoa Δ

II. hiruhilekoa

Sortuak	% 15,6 ▲
Deseginak	% 22,3 ▼

TURISMOA

Oro har, turismo-establezimenduetan (hotelak, apartamentu eta ostatu turistikoak), ekainean 144.308 sarrera eta 279.575 gualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 6,8 eta % 8,5, hurrenez hurren). Batez besteko egonaldia 1,94koa izan da, 2025eko ekainekoa (1,91) baino handiagoa.

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 217.077 ostatu-gau erregistratu dira ekainean, hau da, % 2,3ko hazkundea izan da urtetik urtera (4.867 ostatu-gau gehiago)..

Bidaia-erien sarrerak ere gora egin du, % 4,7. Atzerriko bidaia-erien kopuruak % 8,9 egin du gora urte arteko datuetan, eta ekainean hiriko bisitarien % 59,1 izan dira. Gainerako % 40,9 estatuko bidaia-riak dira, eta -% 0,8 egin dute behera.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaia-ri guztien artean, Madrilgo Erkidegokoak dira nagusi (% 22,0); ondoren, EAEkoak (% 18,5), Kataluniakoak (% 11,8) eta Andaluziakoak (% 7,0). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: AEB (13,5%), Erresuma Batua (% 11,6), Alemania (% 10,9), Italia (% 7,9) eta Frantzia (% 6,7).

Bidaia-erien batez besteko egonaldia 1,87 gualdikoa da (iazko ekainean 1,91koa).

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun datuen arabera, urtetik urtera batez besteko tarifak gora egin du, 150,7 eurora arte, baita gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak ere (126,3 euro).

Apartamentu turistikoaren establezimenduen¹ 16.231 sarrera erregistratu dituzte guztira ekainean, hau da, -% 3,2 gutxiago, eta 39.883 gualdi, eta 2025eko ekainean baino % 28,3 gehiago.

Ekainean, 11.985 sarrera eta 22.615 gualdi erregistratu ziren **turismo-aterpetxeetan**², % 59,1 eta % 58,4 gehiago urte batetik bestera, hurrenez hurren.

¹ Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitatez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalan eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

² Turismo-aterpetxeak: "Turismo-aterpetxeak dira, ohikotasunez eta modu profesionalan, ordainsari baten truke, plaza bakoitzeko geletan ostatu-zerbitzua eskaintzen duten establezimenduak; gehienbat gela kolektiboetan edo edukiera anitzeko geletan, eta, hala badagokio, jatetxe- edo ostalaritza-zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe. Halaber, aisialdiko, hezkuntzako, kirolko nahiz bestelako jarduerak ere eskain ditzakete".

Establezimendu turistiko hartzaileak GUZTIRA

Urte artekoa Δ

Ekaina

Ostatu-gauak, guztizkoak	279.575 ostatu-gauak
	% 8,5 ▲
Sarrerak, guztira	144.308 sarrerak
	% 6,8 ▲
Egonaldia, batez beste	1,94 ostatu-gau/bidaia-riko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Ekaina

Ostatu-gauak	217.077 ostatu-gauak
	% 2,3 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 0,5 ▼
Gainerako hotelak eta pentsioak	% 10,5 ▲
Bidaia-erien sarrerak	116.092 sarrerak
	% 4,7 ▲
Espainiakoak	% 0,8 ▼
Atzeritarrak	% 8,9 ▲
Egonaldia, batez beste	1,87 ostatu-gau/bidaia-riko

Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 7,5 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 8,4 ▲

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Ekaina

Ostatu-gauak	39.883 ostatu-gauak
	% 28,3 ▲
Bidaia-erien sarrerak	16.231 sarrerak
	% 3,2 ▼
Egonaldia, batez beste	2,46 ostatu-gau/bidaia-riko

Turismo-aterpetxeak

Urte artekoa Δ

Ekaina

Ostatu-gauak	22.615 ostatu-gauak
	% 58,4 ▲
Bidaia-erien sarrerak	11.985 sarrerak
	% 59,1 ▲
Egonaldia, batez beste	1,89 ostatu-gau/bidaia-riko

Benchmarkinga. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da, -% 1,2 jaitsi da urte batetik bestera. Gasteizen % 5,2 egin dute behera, eta Donostian % 0,4; Iruñean baino ez dira igo, % 1,2.

EAEEn % 1,1 igo dira aurreko urteko ekainaren aldean. Bizkaian % 4,4 egin dute gora, eta Araban eta Gipuzkoan behera egin dute, -% 1,4 kasu bietan.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 0,4ko gorakada izan dute. Sevillan eta Bartzelonan (-% 1,6 bi kasuetan) izan ezik, ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du goerarik handiena: % 8,9.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 735.286 bidaiari erregistratu ditu ekainean (iritsierak eta irteerak); beraz, urte artean % 7,2ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 49.466 bidaiari gehiago). Emaiza horiekin, gainera, ekaineko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Merkataritza-operazioetan, jaitsi egin da hegaldi nazionalerako bidaiarien kopurua (5.505 bidaiari gutxiago, -% 1,5), eta igo egin dira, aldiz, nazioartekoetakoak (54.802 bidaiari gehiago, % 17,3).

Hilean operatutako hegaldiak igo egin dira, eta iritsieren eta irteeren artean 5.365 izan dira. Eta jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-% 2,6).

Urtarriletik ekainera, 3.561.350 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 8,1 gehiago, hau da, 265.362 bidaiari gehiago.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 4,7ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Aireportuen artean Sevillakoa izan da igoera handiena izan duena (% 11,7), eta Bartzelonakoa, berriz, txikiena izan duena (% 3,2). Zaragozak soilik egin du behera (-% 3,2).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 13,3 igo da. Gasteizek % 47,9 egin du gora, Iruñeak % 2,4 eta Donostiak % 0,6.

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 2,3	▲
G-5	% 0,4	▲
G-3	% 1,2	▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Ekaina	735.286 bidaiari
	% 7,2 ▲
Espainiakoak	% 1,5 ▼
Nazioartekoak	% 17,3 ▲
Salgaiak (kg)	% 2,6 ▼
Hegaldiak	% 1,7 ▲

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 7,2	▲
G-5	% 4,7	▲
G-3	% 13,3	▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan du ekainean, hau da, % 32,2ko igoera aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan ekainean kudeatzen diren salgaien % 63,1 izan da, eta % 81,4ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 1,4 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra -% 14,1.

Ekainean 31.958 itsas bidaiari erregistratu dira 12 itsas bidaiatan.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik ekainera, 17,3 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino % 12,3 gehiago.

Itsas-garraioa

Urte artekoa Δ

Ekaina

Portuko trafikoa	2,8 milioi tona. % 32,2 ▲
Bidaiarien garraioa	50.394 bidaiari % 19,8 ▲
Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)	31.958 gurutzaldiko bidaiari % 44,6 ▲

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua Δ	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.458	0,2*	2026ko ekaina
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	200.042	-1,4*	2026ko ekaina
Erregistratutako kontratuak (kop ^o)**	14.783	13,4	2026ko ekaina
Biztanleria aktiboa (milaka)	173,3	-2,1*	2026ko II. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	157,7	-3,7*	2026ko II. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	15,6	17,3*	2026ko II. HH
BAiko langabezia-tasa (%)	9,02	1,53 ep.*	2026ko II. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	104,1	0,7*	2026ko ekaina
Afiliatuak**	19.646	1,1*	2026ko ekaina
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	112,3	2,6	2026ko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	104,3	2,9	2026ko ekaina
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaerien sarrerak	116.092	4,7	2026ko ekaina
Ostatu-gauak	217.077	2,3	2026ko ekaina
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaieriak)	1,87	-2,1	2026ko ekaina
Hotelen okupazio maila (%)	67,8	1,1 ep..	2026ko ekaina
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	150,7	7,5	2026ko ekaina
Apartamentu turistikoak			
Bidaerien sarrerak	16.231	-3,2	2026ko ekaina
Ostatu-gauak	39.883	28,3	2026ko ekaina
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,46	33,0	2026ko ekaina
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	109,6	0,5*	2026ko II. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	112,8	2,4	2026ko maiatza
Merkataritza-sozietate berriak	267	15,6	2026ko II. HH
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	122,2	1,5	2026ko II. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.015,1	-2,6*	2025eko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.656,3	9,4*	2025eko IV. HH
Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	971,3	6,6	2025
Garraioa			
Bidaerien aireko garraioa (kop.)	735.286	7,2	2026ko ekaina
Hegaldiak	5.365	1,7	2026ko ekaina
Salgaien itsas garraioa (milioi tona.)	2,8	32,2	2026ko ekaina
Hiri- eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari)	137,8	9,5	2025

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI)




Afiliatuak




Erregistratutako langabezia



Hoteletako ostatu-gauak (kop.)



Merkataritza-sozietate berriak



Aireportuko bidaiariak

